



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abenduaren 17a

147. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, 2014rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa onetsi du (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa. Izapidetzeko onartzea (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Gamesako langileak kaleratzeari eta irabaziak izanik ere langileak kaleratzen dituzten enpresentzako laguntza publikoak eusteari buruzkoa, José Miguel Nuin Moreno jaunak egin (4. or.).
- Galdera, Iberdrolaren akzioak saltzeari buruzkoa, Enrique Martín de Marcos jaunak egin (5. or.).
- Galdera, jakitekoa zer urrats egin duen edo egiteko asmoa duen Nafarroako Gobernuak EITBren lau kateak Nafarroan behingoz ikusi ahal izan daitezen, eta horrela bete dadin Parlamentu honen gehiengoak eskatutakoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egin (5. or.).
- Galdera, jakitekoa zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera eta zein ekimen garatuko dituen bermatze aldera eremu ez-euskalduneko herritarrek ikastetxe publikoetan etapa guztietan ikasi ahal izateko daukaten eskubidea, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (6. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2014rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Ararlar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak 2014rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa.

Horri horrela, Legebiltzarreko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, bazter utzia gelditzen da aipatu proiektua.

Iruñean, 2013ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzekoa.

IZAPIDETZEKO ONARTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen herriaren legegintza-ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan batzorde sustatzaile batek, zeinaren lehendakaria Pablo Sánchez González jauna baita.

Ikusita Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek egindako txostena, non jotzen baita proposamena erortzen dela aipatu 3/1985 Foru Legeko 2. artikulua ezartzen duen ez onartzeko kausapean; kontuan hartuta Mahaiaren gehiengoak, eta baita ele-

dunen gehiengoak ere, uste dutela Foru Komunitateak legegintza-eskumena duela gai horretan; Foruaren Hobekuntzaren 49.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera; eta aipatu foru legearen 5. eta 7. artikuluekin eta Erregelamenduaren 149.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Izapidetzeko onartzea kontratazio publikoan zenbait gizarte-klausula sartzeko Foru Lege proposamena, Pablo Sánchez González jauna ordezkari duen Batzorde Sustatzaile batek egina.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an.

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gamesako langileak kaleratzeari eta irabaziak izanik ere langileak kaleratzen dituzten enpresentzako laguntza publikoak eusteari buruzkoa.*JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Gamesako langileak kaleratzeari eta irabaziak izanik ere langileak kaleratzen dituzten enpresentzako laguntza publikoak eusteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak heldu den abenduaren 19ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan dagoen Gamesa enpresako zuzendaritzak 25 langile kaleratzea erabaki du.

Kaleratze-erabakia hartu da nahiz eta Gamesak 2013ko lehen bederatzi hilabeteetan 31 milioi euroko irabaziak izan dituen, hirugarren hiruhileko emaitza-txostenaren arabera.

2012ko abenduan, Gamesak enplegu-erregulaziozko espediente bat exekutatu zuen, enplegua iraungitzekoa, Estatuan 324 kaleratze ekarri zituen; horietako 200, Nafarroan.

Onartezina da irabaziak izateaz gain munta handiko laguntza eta diru-laguntza publikoak eskuratu dituen enpresa batek orain beste 25 langile kaleratzea.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuak inolako urratsik egin al du, edo egingo al du, Gamesarekin harremanetan jarri eta azken 25 kaleratze horiek bertan behera uzteko, halatan langile kaltetuak beren lanpostuetara itzul daitezten?

– Nafarroako Gobernuak enpresentzako laguntza publikoei eutsiko al die, haiek irabaziak izanik langileak kaleratzen dituztenean ere?

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Iberdrolaren akzioak saltzeari buruzkoa.

ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Iberdrolaren akzioak saltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de

Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko lehendakariordeak 2013ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak Iberdrolaren akzioak saltzen baditu, beteko al duzu Parlamentuak 2012ko abenduaren 21ean emandako agindua, enpresetako partaidetzak erosteko edo saltzeko prozesuak aldeztetik erregulatu behar zirela zioena, eta plan estrategiko bat egin behar zela eta Parlamentuari aldeztetik informatu behar zitzaioela?

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an.

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

Galdera, jakitekoa zer urrats egin duen edo egiteko asmoa duen Nafarroako Gobernuak EITBren lau kateak Nafarroan behingoz ikusi ahal izan daitezen, eta horrela bete dadin Parlamentu honen gehiengoak eskatutakoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer urrats egin duen edo egiteko asmoa duen Nafarroako Gobernuak EITBren lau kateak Nafarroan behingoz ikusi ahal izan daitezen, eta horrela bete dadin Parlamentu honen gehiengoak eskatutakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du abenduaren 19ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Zer urrats egin du edo egiteko asmoa du, EITBren lau kateak Nafarroan behingoz ikusi ahal izan daitezen, eta horrela bete dadin Parlamentu honen gehiengoak berriki eskatutakoa, horrenbestez nafar herritar gehienek alde jokatu eta nafar bakoitzak duen informazio-eskubidea babestuz?

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakitekoa zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera eta zein ekimen garatuko dituen bermatze aldera eremu ez-euskalduneko herritarrek ikastetxe publikoetan etapa guztietan ikasi ahal izateko daukaten eskubidea.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera eta zein ekimen garatuko dituen bermatze aldera eremu ez-euskalduneko herritarrek ikastetxe publikoetan etapa guztietan ikasi ahal izateko daukaten eskubidea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den abenduaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den larunbatean, manifestazio bat egin zen Tafallan, "eremu ez-euskalduna" izenaz ezagutzen den eremuko herritarrek ikastetxe publikoetan etapa guztietan ikasi ahal izateko daukaten eskubidea aldarrikatzeko.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

• Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera eta zein ekimen garatuko ditu eskubide hori bermatzeko?

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an.

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

